

BIXENTE INTXAUSTI TESTIGU

Doinua: "Iparragirre abila dela"

1

Gauza ederra da maitasuna,
munduan dan ederrena,
eta besterik ederrik bada
maitasunak dakarrena.
Intxaustitar Bixente
hilda gero be tente,
irribarrez dinoena:
"Zoriontasun betea dala
zerbitzarien azkena".

2

Hirurogeita sei urte dira
baietza emon ebala,
hau biztutako sugarra ez da
amatauko berehala.
Gero ta maiteago,
seinalea hor dago:
hau da maitasun leiala.
Urteak urte maitasun-garra
biziagotzen doala.

3

Maitasunean leialtasuna
da betiko ezaugarri,
bizitza bera dan maitasunak
leialtasuna euskarri.
Jesusen izenean
Amazonas aldean
zenbat gose ta egarri!
Jesus ta biok hamaika kontu
esango zeuntsen alkarri!

4

Danen gainetik maitasuna da
gure Aita Jaungoikoa,
ta maitasuna leiala bada
Bera lez da betikoa.
Jainkoaren testigu
izan zala dakigu
Bixente Mendatakoa:
"Berba gitxi ta egintza asko
euskaldun benetakoa".

5

Maitasuna da gizasemeak
barrutik dauken motorra,
maitasun garrak mobitzen ditu
goxo-goxo hona-horra.
Gaur itsasoz-itsaso,
bihar basorik baso,
Bixentek martxa bizkorra:
"Daukanak daki bakarrik zer dan
maitasunezko mozkorra".

6

Gora Jainkoa, haundia zara
gizaseme apaletan!
Harrigarriak egiten dozuz
andra-gizon makaletan.
Zenbat neke ahalegin
han edo hemen ekin,
Bixente beti benetan.
*Hau baino santu txikiagorik
egongo da altaretan.*

A.Martzel

